

DIRULAGUNTZA – 2. LERROA:**PARTE HARTZE KIROL EN PROGRAMAK BILBOKO UDALEAN (2019-2020 denboraldia).****Dirulaguntza lerro horretara bideratutako zenbatekoa: 16.000 €****Edukia**

1.	HELBURUA	2
2.	DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA	2
3.	ERAKUNDE ONURADUNAK	2
4.	ESKAEREN AURKEZPENA	3
5.	ESKAERA EGITEKO EPEA	3
6.	AURKEZTUTAKO ESKAERAREN AKATSAK ZUZENTZEA	3
7.	ESKAEREN ONESPENA	4
8.	BALORAZIO IRIZPIDEAK	4
9.	EMATEKO PROZEDURA	6
10.	JAKINARAZPENA	7
11.	DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA	8
12.	DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA	8
13.	DIRULAGUNTZEN ALDAKETA	9
14.	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN JARRAIPENA	10
15.	DATUEN BABESA	10
16.	DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA	10
	AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	12
	BALDINTZA OROKORRAK	13
	XEDAPEN GEHIGARRIAK	14
	AZKEN XEDAPENAK	14
1.	ERANSKINA	15
2.	ERANSKINA	17
3.	ERANSKINA	18
4.	ERANSKINA	18
5.	ERANSKINA	20

1. HELBURUA

Parte-hartze kirolen programei laguntza ekonomikoak ematea, zeinak aukera emango duten Bilboko udalerrian kirol osasuntsuez, aisialdikoez eta integratzaileez modu etengabea gozatzeko:

- 2020. urtean
- 2019 - 2020 kirol denboraldian

2. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Parte-hartze kirolen programak	16.000 €
--------------------------------	----------

Informazio guztia eskuragarri dago Bilbao Kirolak-en webgunean:

<http://www.bilbaokirolak.com/es/que-es-bilbao-kirolak/subvenciones>

3. ERAKUNDE ONURADUNAK

1. Bilboko udalerriko kirol programa bat egiten duten pertsona juridikoak.
2. Dirulaguntza hauek jaso ditzaketen kirol erakundeek ZIKa eduki beharko dute (Zerga Identifikazio Kodea).
3. Baztertu egingo dira:
 - Eskola Kontseiluak eta IGEak (Udaleko Hezkuntza sailean bideratzen dira).
 - Bilboko Udaleko Espazio Publikoaren Bulegoaren baimenik ez duten jarduerak, beharrezkoa denean.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu:

- Dagokion zigorrak edo debekuak ezartzen duen epean:
 - Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzea eragozten dioten zigor penal edo administratibo bat duten pertsona juridikoek.
 - Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekuren bat, sexu bazterketatik gertatu direnak barne, duen pertsona juridikoak¹.
- Inolaz ere ez:
 - Aurreko deialdietan jasotako dirulaguntzak justifikatu ez dituzten erakundeek.
 - Bilbao Kirolak-ek aurreko deialdietan jasotako dirulaguntzak itzultzeko eskaera egin eta dirulaguntza horiek itzuli ez dituzten erakundeek.

Informazio guztia eskuragarri dago Bilbao Kirolak-en webgunean:

<http://www.bilbaokirolak.com/es/que-es-bilbao-kirolak/subvenciones>

4. ESKAEREN AURKEZPENA

Eskaerak era hauetara aurkez daitezke:

- E-postaz²: registro@kirolak.bilbao.eus

5. ESKAERA EGITEKO EPEA

20 egun natural deialdi hau BAOn (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala) argitaratu eta biharamunetik hasita.

6. AURKEZTUTAKO ESKAERAREN AKATSAK ZUZENTZEA

Eskaera ez badago:

¹ Emakumearen eta Gizonen berdintasunaren aldeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Seigarren Azken Xedapenean adierazten denaren arabera.

² 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan adierazten denaren arabera.

- ondo beteta.
- dokumentazioa falta bada.

Bilbao Kirolak-ek Erakundeari jakinaraziko dio eskaeraren akatsak zuzendu behar dituela. **10 laneguneko** epea izango du horretarako, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Bestela, Bilbao Kirolak-ek uko egingo dio eskaerari.³

7. ESKAEREN ONESPENA

Eskaera ukatu egingo da, baldin eta:

- Bilbao Kirolak-en lerro estrategikoak betetzen ez baditu.
- Programa ez badator bat bertan ezarritako helburuekin.
- Programa ez bada teknikoki edo ekonomikoki bideragarria.

8. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da, era honetara banatuta:

Gehieneko	Kontuan hartu beharreko kontzeptuak
-----------	-------------------------------------

³ Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan adierazten denaren arabera.

	puntuazioa	
Programaren eragina	60 puntu	• Parte hartzaile kopurua • Parte hartzaileen kirol maila • Proba maila • Ikusle kopurua • Programaren iraupena • Programa aurreko urteetan egin izana • Hainbat erakunderen edo pertsonen arteko lankidetzak • Opariak edo beherapenak Bilbao Kirolak-en abonamenduari • Prentsan, irratan, telebistan, sare sozialetan... agertzea
Aurrekontua egokitzea	10 puntu	• Programarako emandako aurrekontua • Beste finantzaketa iturriak egotea • Erakunde eskatzaileak emandako giza baliabideak • Erakunde eskatzaileak emandako materialak...
Programaren diseinuaren kalitatea	10 puntu	• Betetze eta ebaluazio adierazleak • Barne komunikazioa • Teknologia berrien erabilera • Programari buruzko argudioak
Euskararen, genero berdintasunaren eta kultura-artekotasunaren tratamendua	10 puntu	• Erabat euskaraz egiten diren programak • Genero ikuspegia sartzea • Hizkuntza ez sexista erabiltzea • Kultura-artekotasunaren ikuspegia erabiltzea
Eskatzailearen balorazioa	10 puntu	• Esperientzia egiaztatua • Programa garatzeko gaitasuna • Egitura eta bazkideak

		• Gizarte sareak • Antzintasuna
--	--	---

9. EMATEKO PROZEDURA

- Laguntzen zenbateko osoa ez da 16.000 eurotik gorakoa izango⁴.
- Programak ebaluatzeko, LEHIA KONKURRENTZIA erabiliko da:
 - Aurkeztutako eskaerak alderatuko dira, lehentasunak ezartzeko.
 - Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko puntuei ehuneko jakin bat esleituko zaie, halako eran non :

Puntuak	Eskatutako zenbatekoaren ehunekoa
100	% 100
90	% 90
80	% 80
.....	
.....	
Eta horrela, hurrenez hurren	

- % aplikatuko zaio eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoari.
- Dirulaguntzak ezingo du izan eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.
- Dirulaguntzak ezingo du izan 1.000 €-tik gorakoa⁵.
- Ez zaizkio erakunde berari 3 dirulaguntza baino gehiago emango.

Dirulaguntza guztien batura 16.000 €-tik gorakoa bada, banaketa proportzionala egingo da.

⁴ 2. puntua: dirulaguntzen zenbatekoa.

⁵ 2020. urtean kontzeptu bat eman dakioken gehieneko zenbatekoa.

EBAZPENA

- Proposamena Instrukzio Organoak egiten du⁶.
- Proposamena Kide Anitzeko Organoak balioztatuko du⁷.
- Proposamena Bilbao Kirolak-en Lehendakaritzak erabakiko du, esleitutako zenbatekoa kontuan hartuta.
- Epea: gehienez 6 hilabete, zuzentzeko epea amaitu eta gero.
- Epe horretan ez bada Bilbao Kirolak-en jakinarazpenik jasotzen⁸, Bilbao Kirolak-ek eskaera ezetsi duela esan nahiko du, administrazio isiltasunaren arabera.
- Bilbao Kirolak-ek "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" zein erakundearen webgunean argitaratuko ditu emandako dirulaguntza guztiak, urtea amaitu baino lehen.

10. JAKINARAZPENA

Indarrean den legediaren arabera egingo da⁹.

⁶ Bilbao Kirolak S.A.-ren Zuzendaritza Nagusiaren zuzendariordeak osatua.

⁷ Bilbao Kirolak TEAren Kudeatzaitzak eta Bilboko Kirolak, S.A. Zuzendaritza Nagusiaren zuzendariordeak osatua.

⁸ Aurkeztu diren eskaera guztien berariazko ebazpena ematea beti derrigorrezkoa izanik

⁹ Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40tik 46ra bitarteko artikulua.

11. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

- Jasoko den zenbatekoa jakinaraziko da.
- Ordainketa bakarrean jasoko da dirulaguntza. Banku transferentzia bat egingo da eskaeran adierazitako kontu korrontera.

12. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

- Programaren 10. aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da.
- Jarduera burutu ondoren, Erakundeak aurkeztuko du:
 - Erakundearen identifikazioa.
 - Gastuaren deskribapena; gastuak zuzenean egon beharko du lotuta diruz lagundutako jarduerarekin.
 - Diruz lagundutako programaren memoria.
 - Programari dagozkion informazio eta publizitate material guztien jatorrizko ale bana.
 - Programaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
 - Egindako gastuak baieztatuko duten jatorrizko agiriak.
 - Programaren epearen barruan.
 - Aurrekontuaren % 100.
 - Agirien fotokopiak, konpultsatzeko.
 - Inprimaki ofiziala beteta (FAKTUREN LABURPEN ZERRENDIA - 4. ERANSKINA).
- Aurkezteko epea:
 - 3 hilabete, hasita:
 - Programaren amaiera egunetik (EZ badago bukatuta dirulaguntzaren ordainketa jasotzean).
 - Dirulaguntzaren ordainketa data (amaituta badago dirulaguntzaren ordainketa jasotzean).

¹⁰ 38/2003 Legea eta Bilboko Udalaren eta haren zuzenbide publikoko organismo eta erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarrien Ordenantza orokor arautzailea (BAOn argitaratua, 138. zenbakia. 2016-07-20).

➤ Dokumentuen akatsen egiaztapena eta zuzenketa:

Bilbao Kirolak-ek entregatutako dokumentazioa zuzena dela eta dena dagoela egiaztatuko du.

Bestela, idatzi bat igorriko dio Erakundeari:

- Akatsa zuzentzeko eta/edo falta den dokumentazioa aurkezteko eskatuz.
- Adieraziko dio, halaber, hori egiten ez badu, eskaera baztertu egingo dela.

Erakundeak **10 egun naturaleko** epea edukiko du, jakinarazpena jasotzen den¹¹ egunaren biharamunetik hasita, akatsa zuzentzeko eta/edo dokumentazioa aurkezteko.

➤ Erakundearen betebeharra:

Dirulaguntza eskatu duen programa bete beharko du.

Edozein aldaketa egonez gero, alde zurretik jakinarazi beharko dio Bilbao Kirolak-i.

➤ Zigorra:

Erakundeak itzuli egin beharko ditu jasotako kopuruak, gehi atzerapenari dagozkion interesak¹², baldin eta:

- Ez badu justifikatu.
- Justifikazioa ez bada nahikoa.
- Diruz laguntzeko jarduera betetzen ez badu.

13. DIRULAGUNTZEN ALDAKETA

Dirulaguntza emateko baliatutako parametroren bat aldatzen bada, dirulaguntza aldatu ahalko da, baldin eta dirulaguntza eskatzeko xedea bete bada.

¹¹ Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua.

¹² Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikulua 1. atalean ezarrita dagoenaren arabera.

14. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN JARRAIPENA

Bilbao Kirolak-ek beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egingo ditu, eta sarbidea edukiko du diruz lagundutako programarekin zerikusia duen dokumentaziora.

15. DATUEN BABESA

- Emandako datu pertsonalak dagokion prozeduran edo jardueran aurreikusitako helburuetarako baino ez dira erabiliko¹³.
- Datu pertsonalak ez dira ez tratatuko ez hirugarrenei emango eragindako pertsonaren baimenik gabe, edo legeak aurreikusitako kasuetan¹⁴.
- Datuak ematen dituen pertsonak edozein unetan baliatu ahalko du datu horietara jotzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta uko egiteko eskubidea, arauak adierazten duen moduan¹⁵.

16. DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

- Publizitatea jartzeko aukera ematen duten espazioetan, Bilbao Kirolak-ek emandako dirulaguntzaren ehunekoaren parekoa izango den espazioa edukiko du.
- Bilbao Kirolak-ek eskatutako zenbatekoaren % 75 baino gehiagoko ekarpena egiten badu, eskubidea izango du jardueraren izenari "Bilbao Kirolak" izena eransteko.
- Bilbao Kirolak bada "babesle nagusia", literal horrek agertu beharko du logotipoa sartzen den material guztietan¹⁶.

¹³ Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan adierazten denaren arabera.

¹⁴ Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 6.2 eta 11.2 artikulua (1999ko abenduaren 14ko BOE, 298. zenbakia.).

¹⁵ 15/1999 Lege Organikoa.

¹⁶ Bilbao Kirolak-ek bere logoaren diseinua emango du.

- Diruz lagundutako pertsona juridikoek Bilbao Kirolak-en logotipoa edo izena sartuko dute programak sortzen dituen informazio eta publizitate materialetan, artxibo elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan¹⁷.
- Diruz lagundutako Pertsona juridikoak:
 - Idatziz jakinaraziko dute: programa aurkezteko prentsaurrekoaren eguna, ordua eta lekua.
 - Idatziz gonbidapena bat egingo diote Bilbao Kirolak-en Administrazio Kontseiluko Lehendakariari bertan parte hartzeko.
- Aurreko atalen bat urratuz gero, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango da, % 100ean.
- Euskara eta gaztelania erabili behar dira:
 - Egiten diren publizitate testuetan.
 - Diruz lagundutako jarduerekin zerikusia duten agerraldi publikoetan.
 - Megafonia bidezko mezuetan (lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz).

¹⁷ Bilbao Kirolak-ek bere logoaren diseinua emango du.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. Dirulaguntza eskaera eredu ofizialaren arabera beteta (1. ERANSKINA).
2. Programaren deskribapena (5. ERANSKINA)
3. Eskaera aurkezten duen pertsonaren NANaren kopia.
4. Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia (IFK).
5. Zerga betebeharren ordainketei dagokienez egunera dagoela adierazten duen ziurtagiria, eskumena duen Zerga Administrazioak urte horretan bertan jaulkita.
6. Gizarte Segurantzaren betebeharren ordainketei dagokienez egunera dagoela adierazten duen ziurtagiria, edo, erakundeak ez badu langilerik bere ardurapean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak urte horretan bertan jaulkita.
7. Banku-kontuaren titulartasuna

BALDINTZA OROKORRAK

➤ Bilbao Kirolak-en ildo estrategikoak:

- Kirol jarduera eta jarduera fisikoa ugaltzea eta sustatzea.
- Herritarren bizimodu aktiboa, osasuna eta ohitura osasungarriak sustatzea.
- Kirol jarduerari laguntzea, hainbat arlotan:
 - Kirol federatua.
 - Eskola kirola.
 - Kirol egokitua.
 - Herri kirolak.
 - Emakumeen kirola sustatzea.
 - Zahartze aktiboa sustatzea.
 - Belaunaldi arteko jarduerak sustatzea.
- Hiria hobetuko duen kirol politikarako oinarriak finkatzea, kirolaren kudeaketa aktiboaren bitartez. Kirola oso tresna positiboa da eremu askotan, batez ere gizarte kohesioari eta hiriaren proiektzioari dagokionez.
- Diruz lagundutako erakundeek hitz ematen dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren alde jardungo dutela, eta emakumeen parte hartzea modu aktiboan bultzatuko dutela. Era berean, zainduko dute:
 - Idatzizko eta ahozko hizkuntzaren erabilera ez dela sexista izango eta errespetuzkoa izango dela emakume eta gizonekin, osagai bisualetan.
 - Ez dela inor diskriminatuko bere orientazioagatik, identitate sexualagatik edo genero adierazpenagatik.
- Era berean zainduko dute EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliko direla beren jardueren garapenean.
- Gizarteak kirolaren esparruari esleitzen dizkion balioak kontuan hartuta, diruz lagundutako erakundeek lan egingo dute gizarteari kirola eskaintzeko, balioen eskola gisa, jokabideak eta trebetasunak egokituz, hala nola talde lana, ahaleginaren kultura, elkartasuna, arauen errespetua, osasuna erantzukizunez zaintzea, etab.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Eskaerei buruz erabaki ondoren, Dirulaguntzen ildoetako batek ez badu dagokion aurrekontua agortzen, erabilgarri dagoen zenbatekoa erabili ahalko da beste dirulaguntza ildo batzuei erantzuteko.

Emakida baten itzulketa eskatu behar izanez gero, honen zenbatekoa lerro bereko edo beste lerro batzuetako eskaerak betetzeko erabili ahal izango da, dirulaguntza daukaten beste erakundeen artean banatuta.

Lehendakaritzak diru-laguntzak gauzatzeko, interpretatzeko eta garatzeko eta araudi horretan egon litezkeen akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko behar diren xedapenak eman ahalko ditu.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Dirulaguntza honetan zehazten den orotarako, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoak aplikatuko dira.

BIGARRENA.- Dirulaguntza honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean laburpena argitaratu eta biharamunetik izango du eragina.

HIRUGARRENA.- Oinarri hauek ibilbide administratiboa agortzen dute.

Onetsitako oinarrien aurka, administrazioa auzi errekurtsua jarri ahalko da Bilboko Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita.

Aukeran, berraztertze errekurtsua jarri ahalko du Bilbao Kirolak-en Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean, aipatutako buletinean argitaratzen den egunetik hasita.

1. ERANSKINA**DIRULAGUNTZA - 2. LERROA - ESKAERA****ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONA FISIKOA****Izen-abizenak:****NAN:****Helbidea:****Herria:****Posta kodea:****Sakelako telefonoa:****Telefono finkoa:****E-posta:****Zer kargu duen ordezkatzeko duen erakundean:****ORDEZKATZEN DUEN PERTSONA JURIDIKOA****Izena:****IFK:****Helbidea:****Herria:****Posta kodea:****Telefonoa:****E-posta:****Webgunea:****DIRULAGUNTZA SARTZEKO BANKUKO DATUAK****Titularra (pertsone juridikoarekin bat etorri behar du):**

Kontu zenbakia:

IBAN																			
DIGITUAK																			

Inprimaki hau sinatzen duen pertsonak:

- ezagutzen eta onesten du dirulaguntza honen edukia,
- egiaztatzen du aurkeztutako datuak eta agiriak egiazkoak direla, eta
- legean aurreikusitako debekuetatik kanpo gelditzen dela erakundea¹⁸.

Eskatzailearen sinadura

Pertsona juridikoaren zigilua

¹⁸ Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua.

2. ERANSKINA

AURKIBIDEA - DIRULAGUNTZAREN HELBURU DIREN BIDAIEEN LABURPENA

- Baldintzak betetzen dituzten bidaiak baino ez dira sartu behar.
- Bidaiak zenbatuta egon behar dute (ez da beharrezkoa bidaiaren arabera ordenatuta egotea).
- Bidaien zenbakiak aurkibide honetako lehenengo zutabearen agertu behar du.
- Bidaiaren kopuruak nabarmen agertu behar du justifikazio fakturretan.
- Faktura GUZTIAK aldi berean aurkeztu behar dira, azken bidaiaren ondoren.

Bidaia zenbakia	Bidaia		Data	Lehiaketa	Garraiobidea	Zenbakia		
	O = Ohikoa E = Ezohikoa	Helmuga				Kilometroak (autobus eta tren bidaietarako)	Gauak	Pertsonak

2. eranskina ez da erabiltzen lerro honetan

3. ERANSKINA

KIROLARIEI BURUZKO DATUAK

- Kirolarien datuak sartu behar dira.
- Jaiotza data federazio zerrendarekin egiaztatuko da.
- Eskatzaileei posta elektronikoz bidaltzen zaien **Excel inprimakian sartu behar dira datu horiek**.

Ondoren, Excel-en bete beharreko eremuen irudi bat agertzen da.

3. eranskina ez da erabiltzen linea honetan

ID. Lizentzia / Identifikazioa		Zkia.		Letra	AIZ/ PASAPORTEA/ BESTEAK	Taldea	Kirol modalitatea	"BESTEAK" modalitatea hautatuz gero

4. ERANSKINA

2. LERROA — DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEN DUTEN FAKTUREN LABURPEN-ZERRENDAA

- Fakturek zenbakituta eta ordenatuta egon behar dute (ordena-zenbakia).

- ordena-zenbakiak ez du fakturaren zenbaki ofizialarekin lotuta egon behar.
- ordena zenbakiak leku agerian agertu behar du justifikazio fakturretan.
- ordena zenbakiak aurkeztutako balantzean agertzen denarekin bat etorri behar du.
- zenbaki horrek taula honetan agertzen denaren berdina izan behar du.

2. LERROA ESKATZAILEA:				
Ordena zenbakia	Faktura zenbakia	Data	Kontzeptua	Zenbatekoa

5. ERANSKINA**2. LERROA - KIROL PROGRAMAREN DATUAK BILBOKO UDALERRIAN****2. LERROA****ESKATZAILEA:**

Programaren izenburua	
Diru-sarreraren aurrekontua	
Gastuen aurrekontua	
Eskatutako zenbatekoa	

Noiztik		Noiz arte	
Helburua			

HELBIDEA

KALEA	
--------------	--

ATARIA		POSTA KODEA	
---------------	--	--------------------	--

Bilboko Udalaren Eremu Publiko Bulegoaren BAIMENA

BAI		EZ		EZ DA BEHAR	

PROGRAMAREN DESKRIBAPEN OSOA (arreta berezia 8. artikuluko ebaluazio irizpideei)

--